



**Zumaia Udala**

2016ILPO0002-035-001

**DEIALDIA:**

**ZUMAIAKO UDALEAN EGINKIZUN ANITZEKO PEOIEN LAN-POLTSA LEHIAKETA-OPOSIZIOAREN BITARTEZ SORTZEKO HAUTAKETA PROZESUA.**

Prozesua amaiturik eta epaimahaiaren izendapen proposamenak ikusi ondoren, Zumaia Udaleko lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoan hutsik dauden eginkizun anitzeko 2 peoi plazak bitarteko funtzionario gisa betetzeko izendapenen berri ematen da I. Eranskinean.

Hala jartzen da guztientzat agerian Zumaia Udaleko [www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus) webgunean eta iragarki taulan.

**CONVOCATORIA:**

**PROCESO DE SELECCIÓN MEDIANTE CONCURSO-OPOSICIÓN PARA LA CREACIÓN EN EL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA DE UNA BOLSA DE TRABAJO DE PEONES DE SERVICIOS MÚLTIPLES.**

Una vez finalizado el proceso selectivo y teniendo en cuenta la propuesta de nombramiento por parte del Tribunal según el orden de puntuación final, se publican en el Anexo I los nombramientos para la cobertura con carácter de interinidad de las dos plazas de peón de cometidos múltiples vacantes en la relación de puestos y plantilla orgánica del Ayuntamiento de Zumaia.

Lo que se publica en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de Zumaia y en la página web municipal [www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus) para general conocimiento.

Zumaian, 2016ko abenduaren 21ean  
Sin./Fdo: Izaskun Korta Arcelus, Epaimahaiaren idazkaria



Idatzi honen bidez jakinarazten da 2016ko abenduaren 12an Oier Korta Esnal, Zumaiako Udaleko Alkate jaunak, ondorengo DEKRETUA (803/2016 zk.) erabaki duela:

2016ko martxoaren 15eko 174/2016 Alkate Dekretuz onartu ziren alde batetik, lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan peoien lanpostuan hutsik dauden 2 plaza behin behineko izaeraz betetzeko eta lanpostuan sortu daitezkeen bestelako aldi baterako beharrak betetzeko oposizio-lehiaketa arautuko zituzten oinarriak eta bestetik, prozesua martxan jartzeko deialdia eta argitalpena.

2016ko azaroaren 30eko datan, hautaketa prozesuko behin betiko puntuazioekin batera, epaimahai kalifikatzaileak Zumaiako Udaleko Alkateari proposatu zion puntu gehien lortu zuten lehenbiziko bi hautagaiak, zehazki, 72438359C NANA eta 44135081J NANA dituztenak kontratatzea.

Izendapen proposamena hautagaiei jakinarazi ondoren, lanpostua jabetzan hartzeko epea zabaldu da.

72438359C NANA duen hautagaiak baiezkoa erantzun dio eskaintzari eta kontratazioa 2016ko abenduaren 12tik egitea adostu da.

Hori horrela izanik, eta indarrean dagoen legediak ematen didan ahalmena erabiliaz,

#### **EBAZTEN DUT**

- 1- 72438359C NANA duen hautagaia, Zumaiako Udaleko lanpostuen zerrenda/plantilla organikoan eginkizun anitzeko peoi lanpostuan hutsik dagoen plaza bitarteko funtzionario gisa betetzeko izendatzea. Izendapenak, 2016ko abenduaren 12ko eragin data du eta plaza behin betiko izaeraz betetzen den arte iraungo du beti ere plaza amortizatzea erabakiko ez balitz. Plaza amortizatzea erabakiko balitz, izendapena une horretan bukatuko litzateke.
- 2- %100eko lanaldia izango du eta momentuan indarrean dagoen lanpostuaren balorazio ekonomikoaren arabera, urteko 25391,80€ko ordainsari gordina jasoko du, aintzinasuna eta plusak aparte.
- 3- Bitarteko funtzionario gisa izendatua izateko, lanpostua jabetzan hartu beharko du legeak arautzen duen eran.
- 4- Ebazpen hau langileari jakinaraztea.

**Eta hala jakinarazten da,** jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako. Horrekin batera, adierazten dizut ebazpenak amaiera ematen diola administrazio-bideari, eta horren aurka berraztertze errekurtsoa jartzeko aukera izango duzula Alkatearen aurrean hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri dezakezula bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Zumaian, 2016ko abenduaren 12an  
Gorka Urgoiti Agirre  
Idazkaria



## Zumaia Udala

2016ILPO0002-035-001

Idatzi honen bidez jakinarazten da 2016ko abenduaren 15ean Oier Korta Esnal, Zumaia Udaleko Alkate jaunak, ondorengo DEKRETUA (819/2016 zk.) erabaki duela:

2016ko martxoaren 15eko 174/2016 Alkate Dekretuz onartu ziren alde batetik, lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan peioen lanpostuan hutsik dauden 2 plaza behin behineko izaeraz betetzeko eta lanpostuan sortu daitezkeen bestelako aldi baterako beharrak betetzeko oposizio-lehiaketa arautuko zituzten oinarriak eta bestetik, prozesua martxan jartzeko deialdia eta argitalpena.

2016ko azaroaren 30eko datan, hautaketa prozesuko behin betiko puntuazioekin batera, epaimahai kalifikatzaileak Zumaia Udaleko Alkateari proposatu zion puntu gehien lortu zuten lehenbiziko bi hautagaiak, zehazki, 72438359C NANA eta 44135081J NANA dituztenak kontratatzea.

Izendapen proposamena hautagaiari jakinarazi ondoren, lanpostua jabetzan hartzeko epea zabaldu da.

Alde batetik, 72438359C NANA duen hautagaiak baiezkoa erantzun zion eskaintzari eta kontratazioa 2016ko abenduaren 12tik egitea adostu zen.

Bestetik, 44135081J NANA duen hautagaiak ezezkoa erantzun du egin zaion eskaintzaren aurrean eta ondorioz, sailkapenaren hurrenkeran 3. geratu den hautagaiari egin zaio eskaintza. Honek baiezkoa erantzun du eta adostu da izendapenaren hasiera 2016ko abenduaren 21ko datan izatea.

Hori horrela izanik, eta indarrean dagoen legediak ematen didan ahalmena erabiliaz,

### **EBAZTEN DUT**

- 5- 72454518X NANA duen hautagaia, Zumaia Udaleko lanpostuen zerrenda/plantilla organikoan eginkizun anitzeko peoi lanpostuan hutsik dagoen plaza bitarteko funtzionario gisa betetzeko izendatzea. Izendapenak, 2016ko abenduaren 21eko eragin data du eta plaza behin betiko izaeraz betetzen den arte iraungo du beti ere plaza amortizatzea erabakiko ez balitz. Plaza amortizatzea erabakiko balitz, izendapena une horretan bukatuko litzateke.
- 6- %100eko lanaldia izango du eta momentuan indarrean dagoen lanpostuaren balorazio ekonomikoaren arabera, urteko 25391,80€ko ordainsari gordina jasoko du, aintzinasuna eta plusak aparte.
- 7- Bitarteko funtzionario gisa izendatua izateko, lanpostua jabetzan hartu beharko du legeak arautzen duen eran.
- 8- Ebazpen hau langileari jakinaraztea.



**Zumaia Udala**

2016ILPO0002-035-001

**Eta hala jakinarazten da,** jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako. Horrekin batera, adierazten dizut ebazpenak amaiera ematen diola administrazio-bideari, eta horren aurka berraztertze errekurtsua jartzeko aukera izango duzula Alkatearen aurrean hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri dezakezula bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Zumaian, 2016ko abenduaren 15ean

Gorka Urgoiti Agirre  
Idazkaria